



2. ZATIA ARGAZKIARI BURUZKO ELKARRIZKETA

2. MAILA

Gaia: KIROLA ETA DOPINGA



1. argazkia

Elkarrizketa bideratzeko galderak:

- Zer ikusten duzu argazkietan?
- Badago loturarik argazkien artean?
- Osasuna eta kirola ongi lotzen dira beti?
- Zergatik dopatzen dira kirolariak zure ustez?
- Zein kirolean dopatzen dira gehien?
- Zein dira ondorioak?



Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea

2. ZATIA ARGAZKIARI BURUZKO ELKARRIZKETA

2. MAILA

Gaia: SUA , EURIA...



5. argazkia

Elkarrizketa bideratzeko galderak:

- Zer ikusten duzu argazkietan?
- Zer etorri zaizu burura argazkiak ikustean?
- Noiz gertatzen dira horrelakoak?
- Zergatik gertatzen dira?
- Izan duzu antzeko esperientziarik? Zer egin zenuen?/Zer egingo zenuke?
- Zer egin beharko litzateke horrelakorik ez gertatzeko?
- Klimaren aldaketak izango du zerikusir

AZTERKETARIAREN EGITEKOA: 2. MAILA

Ahozko azterketa

Epaimahaikoen aurrean gin beharreko ariketak

- 1. ZATIA. Aztertzaileen galderak
- 2. ZATIA. Argazkiari buruzko elkarrizketa (*)
- 3. ZATIA. Gaiaren garapena (egitekoa):

(2/3 minutu)

(3/4 minutu)

(3/4 minutu)

**Guztira 10
bat minutu**

Gaia prestatzeko denbora:

15 minutu inguru dituzu gaiaren garapena (egiteko hau) prestatzeko.
Prestatzen amaitzen duzunean, itxaron aztertzaileek deitu arte.

Prestatu behar duzun gaia:

Gaia: HAUR ADOPZIOAK



Egitekoa

Gero eta haur atzerritar gehiago ikusten ditugu gure artean. Asko adoptatuak dira. Zer iruditzen zaizu haur horien adopzioa? Ona da haurrentzat? Zergatik? Arazorik izango dute? Eman zure iritzia hauren **adopzioaz**.

Gai horri buruz hitz egingo duzu epaimahaikoen aurrean, 3/4 minututan.

Zehatzago

Azaldu zer ikusten duzun zure inguruan. Nongo haurrak ikusten dituzun. Nola bizi diren hemen. Konparatu hemengo bizimodua eta beren herrietakoa.

Eman zure iritzia: Ongi iruditzen zaizu haurrak atzerritik ekartzea? Zergatik? Norentzat da ona, gurasoentzat? Haurrentzat? Zein dira haur horien arazoak?

Gogoratu 3/4 minutuz hitz egin beharko duzula.

(*) Aztertzaileentzat:

2. zatirako edozein argazki eman, 3. argazkia izan ezik.

Gaia: KULTURA EZBERDINAK

EZ IDATZI EZER ORRI HONETAN

AZTERKETARIAREN EGITEKOA: 2. MAILA

Ahozko azterketa

Epaimahaikoen aurrean gin beharreko ariketak

- 1. ZATIA. Aztertzaileen galderak
- 2. ZATIA. Argazkiari buruzko elkarrizketa (*)
- 3. ZATIA. Gaiaren garapena (egitekoa):

(2/3 minutu)

(3/4 minutu)

(3/4 minutu)

**Guztira 10
bat minutu**

Gaia prestatzeko denbora:

15 minutu inguru dituzu gaiaren garapena (egiteko hau) prestatzeko.
Prestatzen amaitzen duzunean, itxaron aztertzaileek deitu arte.

Prestatu behar duzun gaia:



Egitekoa

Gero eta etorkin gehiago ditugu gure artean. Etorkinek **kultura eta ohitura ezberdinak** dituzte. Integrazioaz hitz egiten da. Zein da zure iritzia? Erraza da beste kultura batean integratzea?

Gai horri buruz hitz egingo duzu epaimahaikoen aurrean, 3/4 minututan.

Zehatzago

Azaldu zein den inguruan ikusten duzun egoera. Etorkinak bizi dira zure inguruan? Arazorik izango dute? Zertan?

Eman zure iritzia: eskoletan arauak jarri behar dira etorkinen janzkera arautzeko? Eta erlijio ohiturak? Nola integratzen dira etorkinak? Zer egin dezakegu laguntzeko?

Gogoratu 3/4 minutuz hitz egin beharko duzula.

(*) Aztertzaileentzat:

2. zatirako edozein argazki eman, 4. argazkia izan ezik.

EZ IDATZI EZER ORRI HONETAN

Azterketa deialdia: **2007ko ekaina**



Eusko Jauriritzako Erakunde Autonomiaduna
Organismo Autónomo del Gobierno Vasco

**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**